

OÑATI / Bildumatik erretiratutako liburuak oparituko dituzte

Eguenean, hilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute. Horren harira, ekitaldi berezia egingo dute liburutegian: alegia, bildumatik erretiratu dituzten liburuak oparituko dituzte egunean. 'Guztira, 30en bat liburu jarriko ditugu bazkideen eskura', esan digu liburutegiko arduradunak. Horixe baita liburuak jaso ahal izateko bete beharreko baldintza bakarra: bazkide izatea. Liburutegia zabalik egongo da 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era.

Bazkideen artean liburuak oparitzearena urtero egiten duten ekimena da: "Egia esan, bazkideek harrera ona egiten diete halako ekimenei". Hasiera batean, liburuak egunean oparituko dituzte, eta soberan geratzen direnak egubakoitzean. "Jeneralean azkar bukatzen dira. Noski, lehen orduan etortzen direnek gustukoak egiten duten liburua hartzeko aukera izango dute. Eguenean oparitu barik geratzen diren liburuak egubakoitzean banatuko ditugu, baina jeneralean egun bakar batean banatzen ditugu guztiak", diote arduradunek.

Beste ekitaldi batzuk

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko bestea hainbat ekitaldi egingo dituzte datozen egunetan liburutegian.

Alde batetik, etzi eguaztena, Joxean Agirre idazlearekin solasaldia egingo dute kultura etxeko aretoan 19:30ean. Azpeitiako idazleak idatzi duen azken eleberria aurkeztuko du: *La lutte finale*. Agirrek lau pertsonaien hartu-emanak kontatzen ditu liburua berrian: bi gizon (narratzailea eta Garibaldi deitzen dutena); eta bi emakume, Nadia eta Natalie. Istorioa lehenengo pertsonan kontatua dago, narratzailea protagonistetako bat da eta.

Beste alde batetik, hilaren 28an, helduendako ipuin kontaketa saioa egingo du Jose Mari Karrerek liburutegian, 19:30ean. Hain zuzen ere, Euskal Herriko zein munduko kultura ezberdinetako ipuinak kontatuko ditu liburutegian.